

## **Gasteiz eta Dulantzi arteko 5. lineako azken zerbitzua 22:30era aurreratuko da**

*Gaueko mugikortasunaren murrizketa berriak betez*

**Gasteiz, 2020ko urriaren 6a.-** Alavabusen 5. lineako azken zerbitzua, Gasteiz eta Dulantzi artekoa, hamar minutu aurreratuko da bihartik aurrera, azaroaren 7an, larunbatean, eta 22:30ean abiatuko da, gaueko mugikortasunaren murrizketa berriak betetzeko.

Zerbitzu hori asteko zazpi egunetan egongo da martxan, eta, horrela, bihartik aurrera 22:30ean irtengo da Gasteizko autobus geltokitik, orain arte bezala 22:40ean irten beharrean. Hamar minutuko aurrerapen hori Arkauti, Oreitia eta Burgelutik igarotzeko eta Dulantzira iristeko ordutegian ere izango da.

Foru garraioaren gainerako lineen ordutegiek bere horretan jarraituko dute, aldaketarik gabe.